## Videoteca de Baketik

Baketik ha creado una videoteca de películas y documentales cuyo contenido tiene relación con la lucha por vivir y convivir éticamente. Su objetivo es exclusivamente educativo y no comercial. Baketik presta gratuitamente estas películas a quien lo solicite: centros educativos, grupos de tiempo libre, parroquias, ONGs, asociaciones de todo tipo, familias, cuadrillas de amigos/as... Cada película va acompañada de una breve guía didáctica como ésta. Su finalidad es facilitar el análisis y la reflexión sobre su contenido. En cada una de estas guías un/a colaborador/a de Baketik que ha visto la película ha elaborado dos de sus apartados: «temática» y las «preguntas antes y después de su visionado». Es la sugerencia que nos hace esta persona para ver esta película. Si quieres tú también puedes colaborar enviándonos tus opiniones sobre películas que te hayan gustado. (Más información en www.baketik.org)

# Hannah Arendt

## Ficha técnica

TÍTULO ORIGINAL: Hannah Arendt.
AÑO: 2012.
DURACIÓN: 113 min.
PAÍS: Alemania.
DIRECCIÓN: Margarethe von Trotta.

REPARTO: Barbara Sukowa, Axel Milberg, Janet McTeer, Julia Jentsch, Ulrich Noethen, Michael Degen, Nicholas Woodeson, Victoria Trauttmansdorff, Klaus Pohl.
PRODUCCIÓN: Heimatfilm.

## Sinopsis

Biografía de Hannah Arendt, filósofa, pensadora y periodista, judía y exiliada en los Estados Unidos. Es enviada a Jerusalén por The New Yorker a cubrir el jucio del criminal de guerra nazi Adolf Eichmann, quien es juzgado y condenado a muerte. Durante cuatro años trabaja, marcada por la controversia, escribiendo un libro titulado "Informe sobre la banalización del mal" el cual provoca inmediatamente un escándalo internacional.

## Temática

### El mal, el grupo, la humanidad

**El mal.** La película nos presenta la aproximación filosófica al concepto del mal desarrollada por la filósofa Hannah Arendt.

**El grupo.** Hannah, judía alemana que pudo huir del nacismo y continuar su carrera en USA, no construirá solamente su identidad sobre la de ser judía. Eso le llevará, entre otras cosas, a poder aproximarse al estudio del holocausto desde también una lectura autocrítica del papel de los líderes de su comunidad de origen.

**La humanidad.** La película nos habla del juicio en Israel al criminal nazi Adolf Eichmann, responsable del transporte de los judíos a la solución final. Un juicio a lo que fue el mayor ataque a la humanidad, como fue el Holocausto, que nos hace enfrentarnos a la deshumanización absoluta.

## Sugerencias para ver y escuchar la pelicula

Una película se puede ver y escuchar de muchas maneras. Ofrecemos unos puntos de referencia. Concretamente, sugerimos ver y escuchar la película…

**…hacia adentro**. Reflexionar sobre lo que la película nos sugiere en primera persona y sobre las preguntas que nos plantea en nuestra propia vida. No pretendemos buscar respuestas definitivas, atendemos a las resonancias que nos deja.

**…hacia fuera**. Promover un coloquio sobre la película en familia o en grupo. No se trata de llegar a conclusiones. Compartimos lo que hemos sentido y percibido e intentamos escuchar y entender la percepción diferente de los otros.

**…no solo con la cabeza**, también con el corazón. Se trata de dejar por un momento a un lado los prejuicios ideológicos o ideas preconcebidas para que, al hilo de lo que nos cuenta la película, puedan hablar los sentimientos.

…y después de algún tiempo repensar. Estar atentos al poso que la película deja después de unos días. Ese «poso» es una impresión en la que se funden nuestra reflexión sobre lo que hemos visto y la vida propia que la historia cobra en nosotros/as.

## Algunas preguntas…

**…antes de la película**

·Sobre el mal: ¿Qué crees que es 'el mal'? ¿Puede ser una categoría absoluta, es una conducta? ¿Qué puede llevarnos al mal? ¿Has oído hablar de la banalidad del mal?

·Sobre el grupo/pueblo: ¿Debemos ser críticos con nuestra comunidad cualquiera que sea la circunstancia? ¿Qué lealtades se establecen?

·Sobre la humanidad: ¿Qué es? ¿Podemos deshumanizarnos?

**…después de la película**

·¿Puede cualquiera ejercer el Mal? ¿Cómo podemos perder nuestra humanidad?
·¿Ante un fenómeno como el holocausto, hay lugar para una justicia justa? ¿Y para la justicia moral?
·¿Crees, como Hannah, que pensar puede evitar estos desastres? ¿Qué opinión te merece su reflexión de que el mal es extremo, pero no radical, y que consciente y radical solo es el bien?

baketik

**Zeurekin eta besteekin bizitzeko** zinema

# Hannah Arendt




baketik

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

943-25 10 05 www.baketik.org

## Baketik-en bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzearekin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak… Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusi aurretik eta ondoren». Hau da pertsona honek pelikula ikusteko egiten digun iradokizuna. Nahi izanez gero, zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago www.baketik.org webgunean)

# Hannah Arendt

## Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: Hannah Arendt.

URTEA: 2012.

IRAUPENA: 113 min.

HERRIALDEA: Alemania.

ZUZENDARIA: Margarethe von Trotta.

AKTORE-ZERRENDA: Barbara Sukowa, Axel Milberg, Janet McTeer, Julia Jentsch, Ulrich Noethen, Michael Degen, Nicholas Woodeson, Victoria Trauttmansdorff, Klaus Pohl.

EKOIZPEN-ETXEA: Heimatfilm.

## Sinopsia

Hanna Arendt filosofo, pentsalari eta kazetari judutarraren biografia da. Estatu Batuetan erbesteratuta bizi da eta Jerusalemera bidaltzen du The New Yorker egunkariak Adolf Eichmann gerrako kriminalaren aurkako epaiketaren berri ematera. Heriotza zigorrera kondenatzen dute Eichmann. Lau urtetan zehar "Gaizkiaren hutsalkeriari buruzko txostena" izeneko liburua idazten aritzen da, eztabaida bizien erdian. Liburuak nazioarteko eskandalu bat piztuko du.

## Gaiak

### Gaizkia, taldea, gizateria

**Gaizkia.** Hanna Arendt filosofoak gaizkiaren kontzeptura egindako gerturapen filosofikoa aurkezten digu pelikulak.

**Taldea.** Hannak, nazismotik ihes egin eta AEBetan lanean jarraitu ahal izan zuen judutar alemaniarrak, ez du bere identitatea judutarra izatearen gainean soilik eraikiko. Horrek, besteak beste, holokaustoa beste ikuspegi batetik aztertzera eramango du, bere jatorrizko komunitateko liderren jokabidearen irakurketa autokritiko batetik, hain zuzen.

**Gizatasuna.** Filmak Adolf Eichmann kriminal naziari Israelen egindako epaiketaz hitz egiten digu; judutarrak azken ebazpenera eramateko arduraduna zen bera. Muturreko gizagabetasunaren adierazle eta gizateriaren aurkako eraso bortitzena izan zen Holokaustoari egindako epaiketa izan zen.

## Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikustea eta entzutea iradokitzen dizugu:

**…barrura begira.** Gutako bakoitzari esanguratsu egiten zaigun horri buruz eta gure bizitzan bertan sorrarazten dizkigun galderei buruz hausnartu. Helburua ez da betirako erantzunak aurkitzea, uzten dizkigun arrastoei erreparatzea baizik.

**…kanpora begira.** Taldean edota familian elkarrizketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea da.

**…ez bakarrik arrazoiarekin**, baita bihotzarekin ere. Une batez aurreiritzi ideologikoak eta edo aurrez ditugun ideiak albo batera utzi, pelikulak kontatzen digun horren harira, sentimenduek hitz egin dezaten.

**…eta denbora baten buruan**, berriz ere pentsatu. Adi erreparatu egun batzuen ostean pelikulak utzitako arrastoari. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gugan hartu duen biziak sortutako inpresioa da.

## Hainbat galdera…

**…pelikula ikusi aurretik**

·Gaizkiari buruz: Zer uste duzu dela 'gaizkia'? Kategoria absolutu bat izan daiteke, jarrera bat da? Zerk eraman gaitzake gaizkia egitera? Entzun duzu gaizkiaren hutsalkeriari buruzko konturik?

·Taldeari buruz: Kritikoak izan behar al gara gure komunitatearekin egoera edozein dela ere? Zein leialtasun ezartzen dira?

·Gizatasuna buruz: Zer da gizatasuna? Gizagabetu al gaitezke?

**…pelikula ikusi ondoren**

·Edonork egin al dezake gaizkia? Nola gal dezakegu gure gizatasuna?
·Holokaustoa bezalako fenomeno baten aurrean, ba al dago justizia bidezko baterako lekurik? Eta justizia moralarentzat?
·Hannahk bezala uste al duzu pentsatzearekin hondamendi hauek saihestu daitezkeela? Bere iritziz gaizkia muturrekoa da baina ez da erradikala, eta ongia soilik da kontzientea eta erradikala; zer iritzi duzu hausnarketa horri buruz?

baketik

Cine para **vivir y convivir**

# Hannah Arendt




baketik

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

943-25 10 05 www.baketik.org